



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

www.bertsozale.com

2013ko ABENDUA - 150. zenbakia

## DENA PREST DAGO FINALERAKO

Abenduaren 15ean jokatu da Txapelketa Nagusiko finala Barakaldoko BEC aretoan. Irailean hasitako txapelketari bukaera emango dio egun osoko saioak. Goizeko 9:00etan zabalduko dira ateak. Sarrera bakoitzak bere kodea izango du, eta beraz sarrera batekin ezingo da pertsona bat baino gehiago sartu. Eserlekuak zenbakitu gabe egon arren, antolakuntzako kideek bideratuko dute sarbidea, ahalik eta lasaiena izate aldera. Goizeko saioa 11:00etan hasiko da eta eguerdiko 14:00etan bukatu. Behin goizeko saioa bukatuta, Bizkaia Arena pabilioia erabat hustuko da, beraz ezingo da aretoan bertan bazkaldu. Antolakuntza ez da tarte horretan galdu daitezkeen objektuen erantzule egingo. Bazkaritarako txartela daukatenak edo etxetik bazkaria ekarri dutenak 6.

pabilioira joango dira bazkaltzera. Beheko solairuan dago pabilioia, oholtza aldera begira jarriz gero eskuinetara. Saioan zehar ezingo da jan, edan eta erre. Arratsaldeko saioa, berriz, 16:00etan hasiko da eta 20:00ak aldera bukatu.

### Autobus zerbitzuak

Finalari begira, Bertsozale Elkarteak autobus zerbitzua eskainiko du. Saioa bukatutakoan hasieran utzitako lekuan itzarongo dute autobusek, bestelako oharrik egiten ez bada behintzat.

Autobusen ordutegia eta ibilbidea www.bertsozale.com helbidean ikusi daitezke. Txartela internetez erosi dutenek emailaz jasoko dute jakinarazpena.

### Juanito Dorronsoro txapel-emale

Aurten Juanito Dorronsorok jantziko dio txapela txapeldunari. Gaur egun Zumaian bizi den ataurra luzaroan aritu izan da bertsoaritzaren inguruan lanean, irakasle eta ikerlari bezala. Besteak beste, berak osatua da gaur egungo Doinutegia, www.bdb.bertsozale.com helbidean kontsulta daitekeena.

Bestalde, finalaren zuzeneko jarraipena egingo dute Hitzetik Hortzerak eta Bertsoa.com-ek.



Bertsolari Txapelketa Nagusia.//Alberto Elosegui



**JOKIN URANGA**  
2013/11/09 Gernika-Lumo

Bukaerako agurra.

Lujo handi bat zen guretzat gaur kartzelara joatea:  
Aquarius pixka't ta Coca-Cola  
pastak ta txokolata  
barrura sartu eta frontoia  
jendez goraino betea.  
Honen erredun nagusia da  
Bertsozale Elkarte  
ohore handi bat da zuetako  
bat gehiago izatea.

# Munduko ordezkari asko izango dira mintzolaren bec-eko terraza zientifikoan

**Txapelketa Nagusiaren olatua baliatuz, munduko hainbat herrialdeetako eta Euskal Herriko eragile, ikerlari eta adituak gonbidatu ditu Mintzolak harremanak sakondu eta esperientziak trukatzeko.**



Munduko Ahozko Inprobisazio Kantatuaren jardunaldiak.//XDZ

Azken hilabeteotan munduko gainerako herrialdeetako aditu, ikerlari eta inprobisatzaileekin harremanak estutzen ari gara. Alde batetik, bertsolaritzaren berri ematen dihardugu eta, bestetik, gainerakoen ezagutzak eta esperientziak gureganatu nahian ere ari gara, gure burua hobeto ezagutzeko. Gainera, uneotan bertsolaritzari lotutako ikerketa bat baino gehiago dago martxan. Horiek aurrera eramateko, Euskal Herriko ikerlariekin elkarlanean ari gara, nor bere talaiatik ikusten duenaren berri jakin nahian.

Lotura hauek indartzeko asmoz, abenduaren 15erako BECeko finalean Terraza Zientifikoa antolatu dugu guztiak elkartzeko. Atzerriko ordezkariak zabala izango dugu bertan: Kataluniatik Pere Bescós, Cristian Simelio eta Anáis Falcó etorriko dira; Txekiatik Martin Chochola; Kubatik Haydée Hernández, Sonia Pérez eta Patricia Tápanes; Mexikotik Ana Zarina Palafox; Sardiniatik Paulu Zedda eta Aldo Cappi eta AEBetatik John M. Zemke. Galestik 6 laguneren ordezkariak bat izango dugu bertan, ikerlari edo inprobisatzaile direnak horiek ere.

Euskal Herriko ikerlarietara dagokienez ere asko izango dira BECera hurbilduko direnak: Pio Perez, Manex Agirrezabal, Joxerra Garzia, Xabier Paia, Xabier Aierdi, Eric Dicharry, Gidor Bilbao, Kepa Paz, Manuel Carreiras, Miguel Arocena, Iñaki Dorronsoro, Bertol Arrieta, Basilio Sierra, Asier Barandiaran, Zesar Martinez, Fernando Plazaola, Jone Miren Hernandez eta Teresa del Valle.

## Munduko Kantu Inprobisatuari buruzko jardunaldiak

Bestalde, Munduko Kantu Inprobisatuaren inguruko

jardunaldiak aurrera doaz. Abenduaren 11n Kubako adituak izango dira Subijana Etxean. Iluntzeko 19:00etan Patricia Tápanes soziologoak *"Lo simbólico y lo social en la poesía oral improvisada cubana"* hitzaldia eskainiko du. 19:30ean Haydée Hernándezen txanda izango da (*"La enseñanza de la décima improvisada en niños. Los Talleres Especializados de Repentismo Infantil, una experiencia desde la apreciación y el respeto al arte"*). Ondoren, 20:00etan hasiko da Sonia Pérez musikologoaren hitzaldia (*"La poesía oral improvisada cubana desde una mirada musicológica. El repentismo cubano como género musical cubano identitario, patrimonio de la nación"*).

Biharamunean, abenduaren 12an, Euskal Herriko eta Mexikoko adituak izango dira. Hasteko, Basarriren jaiotzaren ehungarren urteurrena dela eta, bere inguruko hitzaldia eskainiko du Andoni Egaña 19:00etan (*"Basarri eta bertsogintza"*). 19:30ean Jon Sarasua ariko da (*"Bat-bateko kantuaren ehunaz"*). Bukatzeko, Ana Zarina Palafoxek emango du hitzaldia (*"Estilos y formas estróficas de la improvisación en los géneros de músicas tradicionales en México"*).

Abenduaren 13an bukatuko dira jardunaldiak, Kataluniako Kantu Inprobisatuari eskainitako hitzaldiekin. 19:00etan Anáis Falcó emango du hasiera (*"De cançons i de corrandes: una introducció al cant de textu improvisado en catalán"*). Pèrre Bescós txanda izango da ondoren (*"Performanceetako alderdi kultural, komunikatibo eta sortzaileak"*). Bukatzeko, bertso-glosa saioa izango da Miren Artetxe eta Gillen Hiribarren bertsolariekin eta Cristian Simelio eta Anáis Falcó glosadoreekin. Carles Belda ariko da trikitilari eta itzultzaile lanetan.

# Bizkaiko Bertsozale Elkartearen 30. urteurrena ospatuko dugu

Aurten 30 urte bete dira Bizkaiko Bertsozale Elkartearen sorreratik. Urte osoan zehar aritu gara ospakizunetan, bertso-eskolei protagonismoa emanda. Hala, desafioak antolatu eta hainbat herritara eta entzulerengana iritsi gara. Ekainaren 22an, Balmasedan, Enkarterriak eta Zornotzako taldea aritu ziren; ekainaren 30ean, Larrabetzun, bertakoak eta Busturialdekoak eta irailaren 21ean, Bizkaiko Zubiaren alde banatatik aritu ziren ALBEko kideak eta Kilika Bertso Eskola eta Zallako Bertso Eskola. Dena den, ospakizunak borobiltzeko azkeneko jai bat egingo dugu abenduaren 7an, Durangon, Liburu eta Disko Azokako Areto Nagusian. Arratsaldeko 18etatik 19etara izango da ekitaldia. Lehenik, Asier Ibaibarriaga lehendakariak hitz egingo

du. Ondoren, Xabier Amurizak, Igor Elortzak eta Oihana Bartrak bertso-saioa egingo dute. Tartean sorpresaren bat ere izango da. Behin ekitaldia bukatuta, bertso-triki-poteoa izango da Durangoko kaleetan zehar.

## Liburua ere kalean

Bizkaiko Bertsozale Elkartearen 30 urteko historia biltzen duen liburua ere argitaratu dugu. 30 argazki eta 30 bertsoz osatutako bilduma da eta bazkideei opari emango zaie abenduaren 7ko jaietan. Egoitzara hurbiltzen direnek ere bertan jasotzeko aukera izango dute

## Urtarrilaren 25ean egingo da bertso eguna

2013a bukatzeko dago oraindik baina 2014ko Bertso Eguna antolatzen hasita gaude jadanik. Urtarrilaren 25ean ospatuko dugu eta egun osoko egitaraua prestatzen ari gara. Urtarrilaren 22an aurkezpen-prentsaurrekoa egingo dugu eta datorren Bertsozalean zehaztuko dugu aurten zein izango den gaia.

Arratsaldeko ekitaldirako eta afarirako sarrerak [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) atarian jarriko ditugu salgai, ohi den moduan. Bazkideek urtarrilaren 7tik aurrera erosi ahal izango dituzte. Bazkide ez direnentzako sarrerak, berriz, urtarrilaren 13an jarriko dira salgai.





## Puntu jarrita

JOKIN SOROZABAL

Asko sufritzen al dek Albotik begira?

Patxadan dagoena eroso bizi da berriak badatoz ta zaharrak erretira alperrik nekatzeko garaiak ez dira

Elkarte (Gipuzkoaz ari gara) barruko "kide leial" titulua jarri dit Millanek. Eta inork ezagutzen ez duelako izena aipatzea alferrik den bertsolari baten bertsoa etortzen zait burura, berak etxe osoa nola konpondu zuen esanez zurgin, igeltsero, eta gainerako denak egin ondoren: "Titulu faltik ez genuke guk kapritxosua bagina"...

Urte haietan batzuei tokatu zitzaigun ezertan jakin gabe gaur profesionalak egiten dituzten lanak egitea; eta ez beti egoera erosoan.

Lazkao-txikiren omenaldi bat boikoteatu genuen, gure ustez EITBk bertsolaritzaren gehiegizko kontrola nahi zuelako; elkarte diru faltan zenean, bi langileak langabezia jarri genituen -lan profesionala borondatez egitera gonbidatuz- eta bertsolariek etxetik dirua eraman zuten elkartera zuloa arintzeko; bertsolari askoren zalantzen artean -geureak barne- txapelketak antolatzea tokatu zitzaigun; geroago, herriarteko ospetsu hura montatu genuen, Millanek dakien bezala ez denak aldeko genitularik: Bertsolaritza eredu ezberdinen arteko talka...; Hitzetik Hortzerako grabazio batean pasiloetan kristorenak entzun -eta esan- genituen, bertsolari gazteei plazetan lekua egiteko kanpaina baten berri eman nahi izateagatik; Gipuzkoako txapelketaren irabazietatik EHBera dirua pasa genuen, guretzat hura inportanteagoa zelako... Hik esaten duan bezala, orain deskantsu ederra albotik begira. Bileraz bilera eta plazaz plaza; nere kasuan biak batera izan baitziren! Lehenengoan neu aspertu nintzen. Bigarreanean jendea aspertu da nonbait nirekin... Ordea, bietan esan dezaket garbi, bertsoak behar izan gaituenean hor egon garela, geure buruaren gainetik eta askotan -gehegigatan akaso- geure iritziaren aurka, kolektiboaren esanera. Urte lanpetuak baina ederrak izan dira.

Ez ginen bakarrik egon, noski. Ez al da hala, Lierni? Hi oraindik apenas aspertu haizen horretan... Gipuzkoatik lapurdira bizitzera joanda, zer dion huntaz eta hartaz? Botaizkigun hemen hire auzolangintza sentipen eromantiko-idiliko perla horietako batzuk...

## Koplak

### "Tximela kapitainaren izarrak" banatuko du Lankuk

Joseba Tapiak disko berria atera du: "Tximela kapitainaren izarrak". Luis Rezolak Duesoko presondegian 1937an idatzitako bertsoak eta poemak oinarri hartuta, gitarra lagun osatu ditu kantuak bere seigarren diskorako. Gosea, herrimina, fusilamenduak, bizitza osorako kartzelaldia... gaitzat hartuta, lan hunkigarria da honako hau. Lankuk Bertso Zerbitzuak arduratuko da banaketaz.

## Poto-Finixa



Hankak hotz eta giroa bero

Gari Garaialde

### Bertsozalea euskarri digitalean jaso nahi?

Berripapera euskarri digitalean jaso nahi baduzu bidali mezu bat komunikazioa@bertsozalea.com helbidera zure izen-abizenak eta berripapera jaso nahi duzun helbide elektronikoa zehaztuz. Bi erataria jaso nahi izanez gero, posta arruntez eta elektronikoz, adierazi mesedez eskaria egiterakoan.

### "Lankuk hamar urte, Hamaika eskaintza"

Lankuk 10 urte bete dituen honetan, bere argitalpenetan eskaintza bereziak ditu. Argitalpen berriak ezik, produktu gehienak %60ko deskontuarekin daude [www.lanku.com](http://www.lanku.com) eta Durangoko Azokan. Balia ezazu eskaintza paregabe hau."



**DURANGOKO AZOKAN GOIENKALE 67.ean aurkituko gaituzue!**

